



2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak landa-eremuan bizitzen diren biztanle guztiak dira, Espainia hutseko herrixketan adibidez, bereziki, adineko pertsonak, mobilitate zailtasunak dituztenak. Normalean baserrietan bizitzen direnak, eta ezin dute haien animaliak hirietara eraman albaitariengana bai mugikortasun zailtasunengatik, ezin dutelako kotxeak garraiatu, bai leku zailtan bizi direlako eta zerbitzu hauek ez dira eskaintzen hor.

Herri hauetan, gendea hirietara joaten da lan eskari ugaria dagoelako, horren ondorioz, jende nagusia bakarrik geratzen da herri hauetan eta jende hau, logikoki, hiltzen doa, horrez gain, herriak erdi abandonatuta geratzen dira eta honek herriaren deteriorazioa eragiten du. Honen adibidea, asfaltatu gabeko kaleak dira, zeinak zailtasunak ematen dituzte herriko biztanleei herritik ateratzeko edo bertan sartzeko.

Gure bezeroen ezaugarriak hauek dira:

- Adineko pertsonak
- Landa-eremuan bizi dira
- Ezin dute garraiatu edo kotxeak ez dauzkate
- Animalia asko dauzkate, oiloak, behiak, ahuntzak, txerriak, txakurrak, katuak... baserrietan bizi direlako normalean, non animalia asko izatea ohikoa den.
- Haien etxeak leku zailtan daude, mendi garaietan daudelako eta askotan ez dagoelako errepide asfaltaturik erraz ailegatzeko.
- Nekazariak dira